

## Bai, bai eta bai (manifestu erratua)

BAI,

hala da, edo hala dela diot, edo hala dela diotzuknik, edo hala dela diotzuknikguk:

Jainkoa  
unibertsoa  
autolaguntza liburuak  
lehendakariak  
guruak eta  
guruak salatzen dituzten guruak

ez dira fidatzekoak

besteentzat plan bat eduki arren  
edo  
hain zuzen ere  
besteentzat plan bat daukatelako

ez dira  
ez  
di  
ra  
fidatzekoak

besteentzat erantzunak eduki arren  
edo, hain zuzen ere,  
besteentzat erantzunak dauzkatelako

ez dira ez, fidatzekoak

agian  
bizitzan  
harridura sortzen duen  
bakarra  
hilkortasun erreal batek mehatxatutako  
pertsona errealean arteko  
elkartasun inperfektua  
da

BAI,

hala da, edo hala dela diot, edo hala dela diotzuknik, edo hala dela diotzuknikguk:

Elvira By poeta handiak idatzi zuen bezala: *Girio pabula beringa es. Inio ba eskila bomba. Sakulu beringa zulunka bes.*

“Ez dira fidatzekoak” esan eta posea salatuko dizute.

Nola dakidan hori, nikzuknik? Ni geu ere ez zarelako fidatzekoa.

Bada “teatroa” iseka moduan erabiltzen duenik,

kirola epika nabarmentzeko erabiltzen duen modu berean.  
Bada “pailazo” deitzen zaituenik min eman nahian,  
edo “maskara” leporatu,  
edo “bufoia” zarela aurpegiratu.  
Arrazoi osoz, esango duzueguk.  
Izan ere, nikzuk uko egiten baitiogu arrazoia izateari.  
Bufoiak konkorrak ereiten ditu abaila galdu duten hitzetan.

Posea salatuko dizute, eta zuknik diozu: bai, bai eta bai!  
Pose absolutua aldarrikatzen dutguk,  
garaian garaiko zauria norberaren azalean agerian uzten duelako horrek.  
Norbera ebidentzian utziz, patetikoia izanez,  
desprestigioaren zirtoa garatzen da,  
agian egungo (gaurko, alegia, atzoko) arterik probokatzailleena dena: erridikuloa.  
Mina Loyk idatzi zuen bezala: *Eragotelibakomeligasbe ikilia go*.

Horregatik, akaso, maskara salatuko dizute, eta gukzuk diozu: bai, bai eta bai!  
maskara janzten dut, maskara delako egia ezinezkoa azaleratzeko modu bat.

“Usurpazioa” edo “teatroa” salatuko dizute, eta zuknik diozu: bai bai eta bai!  
usurpazioa deitzen duzuen maitasuna dela diogu nikzukguk,  
aktoreak inoren azalean sartzeko ahaleginak beti arriskua ekarri arren,  
enpatia delako hanka sartzerik mingarriena.

Eta hori ulertu ez duenak ez du ezer ulertu. Zorionez.  
Emmy Hennings-ek zioen bezala: *Akuluberiga, salanduziztika be*.  
Eta gainera, hau guzti hau aldarrikatuta oker gaude,  
erratu gara,  
hori bera delako bufoiaren funtsa,  
errorea arrazoiari gailentzea,  
pasioa motor bilakatzea eta ez estetika.

Hain da zaila hori ulertzen, antza.  
Edo hain da intelektualitateen kanonean onartezina.  
Probokaziorik handiena zuek ere maitatzea delako, ai!,  
madarikatuak, ulujenbeak, postenpatikoak,  
konkor -halaber intelektualen- ostikotzaileak:  
ez dagoelako norbera ederra kultua inteligentea kritikoa dela pentsatzea  
baino itsustasun ederragorik,  
maiteak, o maiteak!

Maskara salatzen badidazue nik diot: bai, o bai!  
Posea salatzen badidazue nik diot: bai, o bai!  
Bufoia salatzen badidazue nik diot: bai, o bai!

Erridikuloari diozuen beldurra delako  
nire edo zure edo haren edo akaso gure (inoren?)  
indarra.

ETA BAI,

hala da, edo hala dela diot, edo hala dela diotzuknik, edo hala dela diotzuknikguk:

Aske izango zara baldin eta  
askatasunaren definizioa zalantzan jartzen ez baduzu,

demokrazian biziko zara baldin eta  
demokraziaren definizioa zalantzan jartzen ez baduzu,

berdintasunean biziko zara baldin eta  
berdintasunaren definizioa zalantzan jartzen ez baduzu,

bakean biziko zara baldin eta  
bakearen definizioa zalantzan jartzen ez baduzu.

Inurria senti zaitezke txorientzako kaiola batean,  
barroteetan graffiti minimoak idazten:

“Inor ez da aske  
aske izatea erabakitzen duen arte”, adibidez.